

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure proiektua aurrera eramateko oso garrantzitsua da bezeroekin harreman ona izatea, hauekin kontaktuan egotea garrantzitsua da, beraiek arazoren bat baldin badute. Horrelako gauzetaz eguneratuta egoteko. Bezero berriak edukitzea ere garrantzitsua da baina baita ere lehenengo bezeroak ez galtzea, produktua gustukoa badute, beste pertsona batzuei gomendatuko diete, modu honetara bezero berriak ere egongo dira.

Beraiei laguntzeko gure webgunea erabiliko dugu. Bertan gure produktua jarriko dugu, bai bere espezifikazioak, baita eduki ditzazken arazoak konpondu ahal izateko ere gurekin kontaktuan jarri ahalko dira. Eta bi modu egongo dira: bat produktuaren azpian egongo diren iruzkinetan eta bestea gurekin zuzenki kontaktuan jarrita. Azken aukera honek beste bi aukera edukiko ditu, izan ere, telefonoz naiz posta elektronikoko bidez jarri ahalko dira gurekin kontaktuan.

Gainera, Ferrokey eta Coferdrozarekin kontaktuan jarriko gara gure produktua bertan saltzeko. Web gunearen antzera, produktuaren espezifikazio guztiak bertan egongo dira, eta produktuaren inguruko edozein arazo egongo balitz edo salmentaren inguruko informazioa edozeinek nahiko balu, atal bat egongo da informazio guztiarekin edo Ferrokey eta Coferdrozako jendearekin kontaktuan jartzeko aukera ere egongo litzateke.

Bestalde, gure produktua herriko denda batekin kontaktuan jarri eta gure proiektua han jarriko dugu bertako jendeak ikusi dezan. Horrela, herriko jendea denda hortara joango da eta produktua nolakoa den eta nola funtzionatzen duen ikusi ahal izango dute, eta nahi izango balute erosteko aukera ere izango dute. Gainera, arazoren bat edukiz gero bertan egongo diren pertsonak lagundu dezakete arazo hori konpontzen.